

# ***Ingurumen Buletina***

- 1. EAEko Hondakin Planari ELAk aurkezturiko alegazioak.***
- 2. Nafarroako Hondakin planaren berrikusketarako ELAk eginiko proposamenak.***
- 3. Lurralde Antolaketarako Artezpideen berrikusketari ELAk eginiko alegazioak.***

Ingurumen buletin honetan azken aldian ELAk ingurumenarekin lotura estua duten proiektu batzuei aurkezturiko alegazio eta proposamenak argitaratuko ditugu.

### **1. 2020rako EAEko Hondakin Planari ELAk aurkeztutako alegazioak (laburpena)**

“Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020” egitasmoaren aurkezpen publikoa dela eta, ELA sindikatuak ondoren jasotako alegazioak helarazi dizkio Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari:

1. Planak ongi adierazten duen bezala, arazo bat dago hondakinen prebentzio eta kudeaketari dagokionez. Eta berau konpontzeko oinarriak eta helburuak zehaztu behar dira, batez ere hiri hondakinei dagokienez. Alabaina, ez gatoz bat hondakin mota horien gaur egungo egoeraren azterketari buruz egiten diren zenbait ondorio eta balorazioekin:

- Araba eta Bizkaiari dagokionez, planak ondorioztatzen du beharrezko instalazioak eraikita daudela jada eta bete egingo direla finkatutako helburuak. Gipuzkoako kasuan, aldiz, proiektatutako azpiegiturak garatu gabe daudela zehazten da planean, eta atzerapen horrek 2016ko helburuak ez

betetzea ekarriko duela ondorioztatzen da. Ezintasuna ez da ordea proiektatutako azpiegitura horiek zegokion epeetan ez eraikitzearen ondorio, arazo politiko baten ondorio baizik. Azpiegitura horiek eraikita baleude, eta horretarako hainbeste traba jarri izan ez balira, Gipuzkoak bete eta hobetu egingo lituzke aurreko planaren helburuak ez ezik, baita 2020ko Plan honen helburuak ere, eta epe hori baino lehen, gainera.

- Bilketa sisteman balorizaziorako gaitasuna handitzeko egingo diren hobekuntzei dagokienez, ELA ados dago horrekin. Beti ere balorizazio materialaz ari bagara (hau da, materialak birziklatzeaz eta berrerabiltzeaz), eta ez energia-balorizazioaz (materiala erretzea energia sortzeko).

2. Planaren helburua da hiri hondakinen gaikako bilketa %75ean egitea, eta hondakin horien %60 birziklapenerako prestatzea eta balorizatzea. Gipuzkoan, gaikako zenbait bilketa sistemen bidez %85 jasotzen da jada modu selektiboan. Baditugu baliabideak planteatutako helburuak 2020 baino lehen betetzeko, eta, beraz, helburu horiek berrikusi eta goragoko beste batzuk planteatu beharko liriateke. Beste helburuetako bat da 2016a baino lehen biohondakinen %100 tratatzea, Europako hondakinei buruzko

zuzentzarauak horretara behartzen baitu. Baina, nola egingo da hori biohondakin horiek jatorrian eta gaika ez badira biltzen eta konpostatzeko behar beste plantarik ez badago? TMB plantetan hondakinen ehuneko handia ezin da berreskuratu. Azpiegitura horiek lehenetsiz gero, eta jatorrian gaikako bilketa egiteko apustua alde batera utziz gero, errausketaren edota zabortegiaren alde egiten da argi eta garbi.

3. Planean aipatzen da Ekonomia Zirkularra, hau da materialak modu eraginkorrean erabili eta hondakinak ahalik eta gehien berrerabiltzen dituen ekonomia. Baina planteatzen diren helburuak eta neurriak ez dira nahikoa Zero Waste helburura hurbiltzeko ere, eta helburu hori funtsezkoa da ekonomia zirkularrean; miran jarri beharreko helburua, hain zuzen. Ez dio ELAK, Europako Batzordeak dio.

4. Planifikazioari dagokionez, eta planteatutako ekintza eta programa zehatzei dagokionez, sentsibilizazio-kanpainetan eta borondatezko akordioetan oinarritzen dira batez ere ekimen horiek, eta, horrenbestez, gaikako bilketa-tasen eta, ondorioz, birziklatze-tasen hobekuntza mugatua izango da. Hiri hondakinak jatorrian gaika bereiztea derrigorrezkoa izatea planteatu behar da;

industriako hondakinen frakzio gehienetan dagoeneko hala egiten da. Derrigorrezkoa izatea inflexio-puntu bat da hondakinen prebentzio eta kudeaketa politiketan.

5. Planifikazioaren atalean, proposatutako neurriek (4. puntuan aipatutakoek) erakusten dute ekonomia zirkularren printzipioa ez dela lehentasunezkoa. Hierarkiaren eta ekonomia zirkularren printzipioak lehenetsiko balira bestelako interes eta printzipio batzuen gainetik, aukera legoke, egiaz, plan honetan aipatzen den beste printzipioetako bat errespetatzeko: iraunkortasunerako, merkatu berdea sustatzeko eta enplegua sortzeko printzipioa, hain zuzen. ELAn eginiko azterlan baten arabera, sektore hori iraunkortasuneko eta ekonomia zirkularreko printzipio eta irizpideekin garatuz gero, aukera legoke EAEn 7.000 enplegu berde sortzeko (eta jakina, enplegu berdeari buruzko azterketa horretan ez dira aintzat hartzen energia-balorizazioaren eta errausketaren aukerak).

Hau guztia aintzat hartuta, eskatzen dugu, lehenik eta behin, gure ekarpenak aintzat hartzeko, eta, bigarrenik, EAEn Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020 egitasmoa aldatzeko, iraunkortasun, ekonomia zirkular eta enplegu

berde duin eta kalitatezkoak sortzeko irizpideak eta printzipioak oinarri hartuta.

## **2. 2020rako Nafarroako Hondakin Planaren berrikuspenerako ELAren proposamenak (laburpena)**

Azken urteetako hiri hondakinen birziklapen tasak baieztatzen dute 2010ean ELAk Nafarroako hondakin planari (PIGRN) eginiko balorazio negatiboa. Urte hartan, 2010ean, birziklapen tasa %36koa zen, eta PIGRNa martxan egon den 3 urteren ondoren birziklapen tasa 2013an %30ekoa izan zen (Nafarroako Gobernuko web orritik harturiko datuak). Egoera ezin da okerragoa izan. PIGRNak ez du funtzionatu. Gure ustetan ez du berrikuspen bat behar, gure ustetan norabide aldaketa sakona behar du.

ELAtik kudeaketa hobetu, birziklapen helburuak bete eta europar legedia betetzeko neurriak proposatzen ditugu berriro:

1. Hondakinen murrizketa eta berrerabilpena bultzatzeko kontzientziazio programak bultzatzea. Herritarrak kontzientziatu behar dira hondakinen arazoan bakoitzak duen arduraren inguruan, horrela gehiago inplikatzeko dira irtenbidean eta hondakin kopurua jaitsi egiten da.

2. Hondakinen bilketa selektiboa hondakinen kudeaketaren abiapuntua da, eta horregatik du berebiziko garrantzia. Zenbat eta gehiago jaso modu selektiboan, orduan eta gehiago birziklatzen da. Horregatik ezinbestekoa da bilketa selektibo ahalik eta zabalena lortuko duen eredu bat ezartzea. Hondakinak nahastuta jasoko dituen edukiontzirik ez duen sistema bat ezartzea da gure proposamena. Hau da, sortzen den lekuan (etxeetan) selektiboki banatzea derrigorrezkoa den bilketa sistema eskatzen dugu, birziklatu daitekeen guztia sailkatuta jasotzeko. Horrela modu oso esanguratsuan hobetuko liriteke birziklapen tasak. Atez ateko bilketa selektiboa bezalako esperientziek erakusten dute eredu horrekin hondakinen %80a baino gehiago birziklatzera hel gaitzkeela.

3. Hondakinen kudeaketa iraunkorraren beste gako bat materia organikoari ematen zaion tratamendua da, etxeetako hondakin guztien %45a baita batez beste. Dagoeneko hondakinei buruzko Europako 2008/98/EC Zuzentarauak eta Europar Komisioak helburu bezala markatu dute hondakin organiko guztiak modu selektiboan biltzea. Beste helburu bat birziklatu daitekeen hondakinik zabortegira ez eramatea da. Beraz, ezin

izango da hondakin organikorik zabortegietara eraman. Helburu hauek errealitate bihurtzeko oinarrizko bi neurri hartu behar dira. Lehenengoa hondakin organikoen %100a selektiboki biltzea ondoren konpostatze tratamendua aplikatu eta zabortegietara ez iristeko. Bestea etxeo eta komunitateko konpostatzea bultzatzea izan behar da. Horrela hondakin organikoen zati handi bat sortzen duenak berak kudeatuko du.

4. Selektiboki jasotako hondakinak tratatzeko, eta kontuan izanda bilketa selektiboarekin tratamendua behar duten hondakin kopurua handitu egingo dela, hondakinen kudeaketa sistemak tratamendurako azpiegitura gehiago beharko ditu. Europako legediak zehazten dituen helburuetako batzuk birziklatu daitekeen hondakinik eta tratatu gabeko hondakinik zabortegira ez eramatea izanik, neurri hau ezinbestekoa izango da europar legedia betetzeko. Gainera sektore honetan enplegua sortzea suposatuko du.

5. Kontuan izanik birziklatu daitekeen eta tratamendurik jaso ez duen hondakinik ez dela iritsiko zabortegira, etorkizuneko zabortegiak garbiagoak izango dira gaur egun tratatu gabeko hondakinak jasotzen

dituztenak baino. Beraz tratamendua jaso duen eta birziklatu ezin daitezkeen errefusarentzat irtenbidea inerteen zabortegia izan behar da, erraustegiak eta hauek behar dituzten zabortegi toxikoak baztertuz. Baina errefusa honen murrizketan ere pausuak eman behar dira. Ikerketa eta berrikuntza ezinbestekoak dira, eta horregatik proposatzen dugu I+G+B bultzatzea, helburu argiekin: zero zabor helburura gerturatzen den sistema bat, eta enplegua sortuko duen sektore ekonomiko garrantzitsu eta iraunkor bat garatzea.

Hondakinen kudeaketak gaur egun Nafarroan duen egoera ikusita, ELAk exijitzen du orain hartu beharreko erabakia ez izatea PIGRNaren berrikuspen single bat, hausnarketa sakonago bat egitea. Eta ekonomikoki, sozialki eta ingurumen ikuspuntutik benetan iraunkorrak diren neurriak hartzea ekonomia zirkular bat posible izan dadin.

### **3. Lurralde Antolaketarako Artezpideen aldaketari ELAk aurkezturiko alegazioak (laburpena)**

Lurralde Antolaketarako Artezpideak (LAA) EAEn Administrazio ezberdinek politika sektorialak (etxebizitza, azpiegiturak,

basogintza, ingumena, garapen ekonomikoa, ekipamenduak,...) lurraldera eramateko planifikazio tresna dira. Helburu gisa izan behar dute 60-70 urteetako desarrollismoaren kontrolik gabeko hiri eta industria hazkundearen eraginak zuzentzea. Tresna-estrategiko funtzioa ematen zaie lurzoruaren erabilera arduratsuan eta kohesio sozialean oinarrituriko lurralde eredu bat lortzeko.

Gizarte eragile ezberdinen bultzatutako eta Eusko Legebiltzarrean 2013ko otsailean onartutako mozio batek, 2011an aurreko gobernuak aurkezturiko funtsezkoa ez zen aldetaren Aurrerapena atzera botatzea eta LAAren benetako berrikuspena egitea eskatu zion Gobernuari. Horretarako herritarren parte hartze prozesu zabal baten bidez gaur egungo erronka ekonomikoak, sozialak, ingurumenekoak, genero ikuspuntuak, kulturalak eta paisaiarenak kontuan hartzeko eskatuz. Baian Parlamentuaren eskaerari ezikusiarenak eginez, Eusko jaurlaritzak ez du LAAren inongo ebaluazio eta berrikuspen prozedurarik hasi. Guztiz kontrakoa, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean publikazio hutsa egitea bezalako zalantzakoa den eta parte hartze eskasa duen metodoa erabiliz, LAAren

zati bat den “erresidentzia kuantifikaziorako formula” bakarrik aldatuko zela iragarri zuen. Formula honek udaletako hirigintza planek etxebizitzak eraikitzea bideraturiko lurzoru izendatzeko erabili behar diren irizpide lotesleak ezartzen ditu. Nahita utzi dira alde batera azken urteetan bultzaturiko lurralde ereduari buruzko eztabaida, eta honen eraginaren eta ondorio ebaluazioa.

Arrazoi guzti hauengatik eta gure kritika helarazteko, ELAk ondorengo alegazioak aurkeztu zituen:

1. Baldintzatutako berrikusketa. Lurraldea, bizi garen ingurua, merkatuko produktuak ez bezala behin eta berriro sortu ezin dena, ikuspuntu integral eta integratzaile batetik ordenatu eta planifikatu behar da. Lurralde ereduari buruz egin beharreko eztabaida zatitzeak eta etxebizitza eraikuntza eta eskaintzaren hazkundera lehentasun bezala jartzeak lurralde antolaketarako proposamen berri oro sakonki baldintzatzeko ditu. Lurralde ereduaren antolatzeko tresna izan behar direnak, zehaztuta geratuko dira hilabete batzuk barru hasiko den lurralde ereduaren inguruko benetako eztabaida ireki aurretik.
2. Burbuila inmobiliarioaren formula. 1997ko LAAren erresidentzia kuantifikaziorako formularen osagaiak, “hazkunde selektiboak”,

“habitat alternatiboak” eta “eskaintzaren zurruntasunaren zuzenketa” deitzen direnek bereziki benetako etxebizitza beharren aurreikuspenean efektu biderkatzailea dute. “Esponjamendu koefizientea” deitzen denak, populazioaren bilakaeraren arabera behar diren etxebizitza kopurua  $\times 1,5$  egitera behartzen ditu udalak. Hau da, udaletxe guztiek beraien Hirigintza Plan Nagusian egindako etxebizitza beharraren aurreikuspena baino %50 gehiagorako lurra kalifikatu behar du. Bestalde Eusko Jaurlaritzatik diote formula honek Hirigintza Planetan gehiago muga bezala egiten duela, ezin baitaiteke etxebizitza aurreikuspena  $\times 3$  baino gehiago egin. Baina mugatzat hartu ahal daiteke etxebizitza beharra %300ean puztea posible egiten duen koefiziente bat? Formula honen neurritz kanpoko emaitzek burbuila inmobiliarioari atea irekitzen diote.

3. Aurrerantzako ihesaldia. Formularen egokitze bezala aurkezten da aldaketa hau, baina urte hauetan formula honek izan dituen eraginak ebaluatu gabe. Asmo on asko aipatzen dira, gehiegizko lurzoru kontsumoaren inguruko kezka, hiri konpaktuaren aldeko apustua, hiri birgaitzeko beharra,... Baina formularen ez da

osagai berririk sartzen gutxieneko helburu batzuk kontuan hartzeko, esaterako, gutxieneko birgaitzerako, lurzoruen gutxieneko berrerabilerarako edo urbanizazio sakabanatuen hazkundeari mugak jartzeko. 1997tik indarrean dagoen formularen osagai berak errepikatzen ditu, eta aldaketa tekniko bat egiten zaio soilik. Etxebizitza berrien eraikuntza erritmoa moteldu egin dela ondorioztatzen da, burbuila inmobiliarioaren lehertzea aipatu ere egin gabe. Gainera, hirigintza desarrollistaren eta hiriaren hazkunde estentsiboaren formula hau, European martxan jartzen ari diren hiriaren Birgaitze Integralerako estrategietatik guztiz aldentzen da, hiriaren birgaitzea eta kohesio soziala bilatzen duten estrategietatik hain zuzen.

4. Formula hau etxebizitza eskubiderako gizarte politikekin kontraesanean dago. Formula honek bizkarra ematen die politika sozialei eta etxebizitza izateko eskubideari. Formula honetan ez dute lekurik Etxebizitzarako Paktu Sozialak ez eta Legebiltzarrean tramitatzen ari diren Etxebizitza lege proiektuak ere. Azken honek propietatearen erabilera soziala erregulatzen du etxebizitza duin bat eskuratzeko eskubidearen mesedetan eta etxebizitza

hutsen gainean du eragina. Formularen ez da etxebizitza duina izateko eskubidea bermatzeko gakorik sartzen, eta behin eta berriro, erresidentzia eskaintza kuantifikatzeko formula autojustifikatzen du etxebizitza beharrarekin. Proposamen hau Administrazio Publiko batetik etorrira, behar hau aipatzen denean etxebizitza duina izateko eskubideari buruz ari dela suposatu behar da.

Arrazoi guzti hauengatik, Lurralde Antolaketaarako Artezpideetan Erresidentzia

Kuantifikatzeko Formulari dagokionean aldaketa partziala egiteko proposamena erretiratzea eskatzen dugu, tresna hau laster hasi behar duen LAAk aldatzeko prozesuan erabakitzeko. Eta Eusko Legebiltzarreko 2013ko otsaileko mozioak eskatzen duen bezala, prozesu honek helburu izan dezala hiritarren parte hartzearen bidez etorkizuneko erronkei aurre egitea arlo ekonomiko, sozial, ingurumeneko, genero ikuspuntuko, kultural eta paisajistikoetan.